



GEHITU-k, Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak erabilera publikoko entitatetzat jotakoak, maiatzaren 17an ospatzen den homofobiaren eta transfobiaren aurkako eguna dela bide, erabaki du **BERE HOMOFOBIARENGATIK NABARMENDU DEN PERTSONA EDO ENTITATEARI LATORRIZKO GEHITU SARIA** ematea:

Joan den otsailaren 27an "Foro de la Familiak" gay eta lesbianen arteko bikoteentzako legezko berdintasunaren aurka eta ezkontza-esparrutik bikote horiek baztertzeko Kode Zibilaren erreformaren alde aurkeztutako ekimena kontuan hartzearen alde bozkatu zuten Euskadiko eta Nafarroako legebiltzarkideei, jakin baitzekiten ekimen horrek gure seme-alabentzako legezko babesik eza zekarrela eta gure familienganako eraso garbia zela.

Gure ezkontzak eta gure familiak babesten dituen Kode Zibilaren erreforma bi urtez normaltasun osoz aplikatu dela kontuan izanik, mota honetako ekimenak lehengo egoerara itzultzeko alferrikako saiakerak besterik ez dira, non nagusi diren bereizkeria eta bazterketa, ez direlarik onartzen gure ezkontzak ezkontza heterosexualen maila berean.

Honako hauek:

Euskadiko Alderdi Popularreko 4 legebiltzarkidek

Unión del Pueblo Navarro-ko 2 legebiltzarkidek

Eusko Alderdi Jeltzaleko legebiltzarkide 1ek

ekimen homofobo, intolerante eta zorrotz honi emandako babesak, zorionez, ez zuen hori kontuan hartzea eragin, nahiz eta gure eskubideek, gure berdintasunak eta gure duintasunak etengabe jasaten duten erasoaren erakusgarri izan zen.

Halaber, ex aequo eskaintzen zaio 2007KO LATORRIZKO GEHITU SARIA:

Poloniako Gobernuari

herrialde horretako pertsona gay, lesbiana eta transexualei zuzendutako etengabeko erasoengatik. Gutxiengo sexualak jazartzeari dagokionez, gobernu horren azkeneko ekimena aurtan, martxoan, iragarritakoa da, hau da, hezkuntza-sistematik orientazio afektibo-sexualaren aniztasunari buruzko erreferentzia oro kentzea; beren orientazio homosexuala modu publikoan adierazten duten irakasleak hezkuntza-zentroetatik botatzeko mehatxua ere adierazi dute. Gaur egungo Europan, erabat onartezina da estatu demokratiko batean mota honetako planteamenduak, legeria atzerakoiak eta baztertzailak burutzea, irakasleak diren lesbiana eta gay-ei eragiteaz gain, haurrek modu integral batean, berdintasun, askatasun eta bereizkeria ezaren printzipioen arabera hezteko duten eskubidearen aurka baitoaz.